

GOGRATU

Hiru zifrako zenbakietan, **ezkerreko zifrak ehunekoak** adierazten ditu; **erdiko zifrak, hamarrekoak**; eta **eskuinekoak, batekoak**.

1. Lotu zenbakiak eta deskonposizioak.

893 •	• 3 ehuneko + 5 hamarreko
769 •	• 8 ehuneko + 9 hamarreko + 3 bateko
350 •	• 4 ehuneko + 8 bateko
408 •	• 7 ehuneko + 6 hamarreko + 9 bateko

2. Egin eragiketa hauek:

$$\begin{array}{r} 4295 \\ 3102 \\ + 1879 \\ \hline \end{array}$$

$$\begin{array}{r} 62349 \\ - 4963 \\ \hline \end{array}$$

$$\begin{array}{r} 285 \\ \times 2 \\ \hline \end{array}$$

Gogoratu

Problemak ebazteko, urrats hauei jarraitu behar zaie:

- Enuntziatua eta planteatutako galdera ulertu egin behar dira.
- Zer eragiketa egin behar diren pentsatu behar da.
- Eragiketak egin behar dira.
- Erantzuna zuzena dela egiaztatu behar da.

Kiosko batean, 275 egunkari jaso dituzte gaur. Goizean, 135 saldu dituzte, eta arratsaldean, 65. Zenbat egunkari geratu zaizkie saldu gabe?

Lehen eragiketa

Bigarren eragiketa

Erantzuna:

.....

Gogoratu

- Hiru zifrako zenbakiak alderatzeko, ehunekoak alderatu behar dira lehenbizi; ehunekoak berdinak badira, hamarrekoak alderatu behar dira; eta hamarrekoak ere berdinak badira, batekoak alderatu behar dira.
- Zenbaki bat beste bat baino txikiagoa edo handiagoa dela adierazteko, ikur hauek erabiltzen dira: ... baino handiagoa, $>$; ... baino txikiagoa, $<$.

1.- Kasu bakoitzean idatzi $>$ edo $<$ ikurra.

$$465 \bigcirc 456$$

$$243 \bigcirc 261$$

$$856 \bigcirc 756$$

$$917 \bigcirc 971$$

$$670 \bigcirc 390$$

$$567 \bigcirc 498$$

2. Egin eragiketa hauek:

$$\begin{array}{r} 2956 \\ 3971 \\ + 1239 \\ \hline \end{array}$$

$$\begin{array}{r} 80123 \\ - 1478 \\ \hline \end{array}$$

$$\begin{array}{r} 574 \\ \times 7 \\ \hline \end{array}$$

Buruketa:

Autobus batean 68 lagun doaz. Lehen gereduan, 19 lagun jaitsi dira autobusetik; bigarrenean, berriz, 13 igo dira autobusera. Zenbat lagun doaz orain autobusean

Lehen eragiketa

Bigarren eragiketa

Erantzuna:

.....

Gogoratu

Zenbaki ordinalak ordena edo posizioa adierazten dute.

1. Osatu taulak.

Ordinala	Nola irakurtzen da?
1.a	
	bigarrena
3.a	
4.a	
	bosgarrena
	seigarrena
7.a	
	zortzigarrena
9.a	
10.a	

Ordinala	Nola irakurtzen da?
11.a	
	hamabigarrena
	hamahirugarrena
14.a	
15.a	
	hamaseigarrena
	hamazazpigarrena
18.a	
	hemeretzigarrena
20.a	

2. Egin eragiketa hauek:

$$\begin{array}{r} 7321 \\ + 970 \\ + 403 \\ \hline \end{array}$$

$$\begin{array}{r} 92120 \\ - 8753 \\ \hline \end{array}$$

$$\begin{array}{r} 3107 \\ \times 8 \\ \hline \end{array}$$

Buruketa

Alexek 23 urte ditu, eta aitak, berriz, hiru aldiz urte gehiago. Zenbat urte ditu Alexen aitak?

Erantzuna:

Gogoratu

Lau zifrako zenbakiek **milakoak (M)**, **ehunekoak (E)**, **hamarrekoak (H)** eta **batekoak (B)** dituzte.

1. Osatu segida hauek.



1.000	1.100	1.200		1.400		1.600		1.800		
-------	-------	-------	--	-------	--	-------	--	-------	--	--

1.000	2.000	3.000			6.000			9.000
-------	-------	-------	--	--	-------	--	--	-------

5.900	5.800	5.700				5.300			5.000
-------	-------	-------	--	--	--	-------	--	--	-------

2. Egin eragiketa hauek:

$$\begin{array}{r} 2153 \\ + 515 \\ + 109 \\ \hline \end{array}$$

$$\begin{array}{r} 7050 \\ - 899 \\ \hline \end{array}$$

$$\begin{array}{r} 8012 \\ \times 4 \\ \hline \end{array}$$

Buruketa:

Antzoki batean, 34 txartel saldu zituzten atzo. Gaur, bi aldiz txartel gehiago saldu dituzte. Zenbat txartel saldu dituzte?

Erantzuna: